

Telmo Munduate Goikoetxea

D maila • 1 saria

Kaixo, Telmo Munduate nauzue, San Benito ikastolan dabilen ikasle ataundarra. Zinema dut gustuko, eta historio arrotzak hitz, ipuin bilakatzea pasio.

Ipuin hau, aiton amona guztientzat doa, gure irribarreak sortu eta haserreak itzaltzen dituztenentzat.



“JAIO, AMESTU, BORROKATU, GALDU”

“Egur zaharra erretzeko, ardo zaharra edateko, lagun zaharrengan konfiantza izateko, idazle zaharrak irakurtzeko.”

Francis Bacon

Egun bat gehiagoz hemen nago izara horixka hauen artean, lehio zirrikituetatik irristatzen diren haize ufada fin horien ihesi. Lau pareten erdian. Neguko tristuran eta gaueko bakardadean norbaiten babesa sentitu nahirik.

Laurogehita zazpi urteetan laztandu, maitatu eta lagundu ostean hementxe baztertu naute oinordeko kakanarru horiek. Baina lasai, nire arima suspertuta dagoen bitartean ez diet utziko zaharretxe honetan pauso bat bera ere ematen. Ez diet utziko nire irrifarra beste egun batez ikusten, ez eta nere lau xoxak gauero amesten.

Bat batean urruneko pauso lehor eta sakon batzuk entzun ditut, dudarik gabe nire logelako norabidean. Niregandik oso hurbil sentitzearekin batera atearen bat-bateko “ttak-ttak”-ak izutu egin nau.

- Joxe iriki ezak atea- xuxurlatu dit Mielek, zerbait izkutatu nahiko balu bezala.
- Zer galdu duk hik hemen? Aspaldi hontan ez diat hire berririk izan.- leporatu diot.
- Ez diat astirik izan. Gainera etxean ere ez diagu giro atseginik.- azaldu dit malkoa masailetik irristatuz.

Bere begien distirak dena esan didate eta besarkada batez bere gorputz gihartsu eroria bildu dut. Arratsalde osoa gure tristurak elkarbanatzen pasa dugu, hasperenak eta isilune luzeak tarteko izanik. Isiltasun horietako batean, Mielek kuaderno zaharkitu bat atera du besapetik eta ni ez ohartzeko moduan gau-mahaian utzi du.

Mielen mugikorrak “musika” zaratatsu hori igorri orduko pauso bizkorrean irten da eta nik logelako lehio txikitik ikusi dut bere inguruko iluntasuna. Bertantxe hotzikara baten menpe geratu naiz, Mielen itzalari segika.

Gauerdiko ilargiaren argitasunean nire buru zahar hau ezin lo harturik dago, Miel

gizarajoarengan pentsakor. "Zerbait egin behar diat"."Bai, bihar bertan","Hi eta Ni". "Ni eta Hi". Eta nire muinean hitz horiek bueltaka dabiltzala loak hartu nau.

Egunsentiarekin batera esnatu eta nire burutapen ezkorrak alde batera utziz, lehen orduko "aquagym"-eko klasera joan naiz, egunari gogotsu ekiteko. Ni eta nire antzeko beste hainbat gizon-emakumeok goizeko ur epelaren laztandua hartu eta, hor noa berriro nire kobazulora. Sastraka artean bidea egin, larruzko sofan babestu eta telefonoaren ondoan jarri naiz Mielen deiazen zain. Atzo arratsaldeko liburuxkaren azalpena emango didanaren esperantzan. Baina gaur ere ohiko egun bakarti horietakoa izan da. Egun bat gehiago. Edozeinen hitzak entzuteko prest, baina eguraldia bezalaxe goibeldurik jardun dut. Mielen egunerokoaren idatziak izan ditut hitz lagun. Irakurketa izan da gaurko solasaldia. Hasi naiz. Banoa. Nire begiak gorritzen hasi dira. Malko lodi bat atera berri zait. Ezin dut jarraitu. Nire burua ez dago emozio hauetarako prest.

"Pooo! Poooo! Poooo!" Entzun dute nire belarri zimurtuek. Lehiotik begira jarri naiz eta bidegurutzetik tanke berdexka erraldoi bat ikusi dut. Begiak igurtzi ditut bistan dudan ibilgailu erraldoi hori benetakoa den zihurtatzeko. Eta bertan ikusi dudanak oraindik gehigo harritu nau. "Miel!" oihukatu dut ozen.

Arnasaldi luze bat hartu orduko Mielen ondoan nago zutik, M27R tankeko sabaitik lepoa atera eta alde guztietara so. Hogeita hamargarren hamarkadako eta adorerik gabeko "Guerra Civil" gogor eta amorragarri honen erdi erdian.

- Lasai, ez hadi atsekabetu. Gaurko gaua ez duk errez ahaztuko.- esan dit, seguru.

Eta begiradak gurutzatzearekin batera hasi dugu "gure gerra". Gu biok beste guztien aurka. Etxekoak, auzokoak, herrikoak. Denen aurka.

Garaiko kaleetan barrena goaz. Haizearen babesean. Gure arbasoen begiradapean. Ibilbidea oztopatzen diguten faszista, alemaniatik bidalitako arrano hegalaria eta obispo-etxetik ateratako bela beltzak birrinduz goaz. Bideko haur galduak, besorik gabeko amen besoetan lokartutako jaioberriak eta odolez jantzitako anai-soldaduak gureganatzen ditugun bitartean

Eta bidaiaren azken minutuak "gure errota" pasa ditugu. Gu bion errota. Gure eskuak lehen aldiz elkartu ziren errota berean. Gure sekretuak elkarbanatu genituen lekuan. Gure edan-egonak egin genituen errota. Eta gure azken gaua pasa dugun errota. Gure errota.

Irudi horiekin batera izerdi patsetan esnatu naiz. Nire goputza dardaka, ezin egona barruan sentitzen dudalarik. Jaiki eta lehio ertzean eseri naiz, eguzkiaren argia eta energia sentitzeko gogoz.

Goizeko zortziak. Inguruko logeletan mugimenduak entzutearekin batera, gelako telefonoak jo du.

- Joxe, Arantxa naiz, Mielen alaba. - esan dit ahots moztu negarti batez.- "Aita... bart gure artetik joan da."

Isilik geratu naiz, ezin dut hitzik esan. Nire bihotzaren taupadak geldituz doaz, Mielenarekin batera. Negarrez hasi naiz, gure idatzien koadernoak eskuan dudalarik, orriak malkoz bustiaz. "Azken gaua elkarrekin pasa diagu" xuxurlatu diot eta azken hitzak irakurtzearekin batera papertxo solte bat erori da.

"Bizi honetan jaio, amestu, borrokatu, galdu."